



Irakaskuntzako Hizkuntza Eskakizunak: erreklamazio-epea (proba idatziarena eta ahozko probarena). 2025eko bigarren deialdia

Ahozko probaren behin-behineko emaitzak argitaratu eta biharamunean, idatzizko zein ahozko probaren erreklamazioa egiteko epea irekiko da. Erreklamatzeko hau dakar: proba berriz zuzentzea eta ikusteko edo entzuteko aukera izatea. Edonola ere, erreklamatzeko ez dakar pertsona bakoitzari azalpen indibidualak ematea.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko emaitzak argitaratuko dira. Idatzia gainditu dutenei nota gordeko zaie hurrengo deialdirako, eta ondorioz, ahozko proba baino ez dute egin beharko. Horretarako, ezinbestekoa izango da deialdian izena ematea.

Erreklamazioak

Erreklamazio-epea: 2025eko abenduaren 30etik 2026eko urtarrilaren 8ra.

Non aurkeztu: Ikasgunea webgunearen bidez (<https://ikasgunea.euskadi.eus>; Administrazio-prozesu eta laguntzak >> Sarbide Proben eskaera eta lehiaketak), edo, bestela, dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan.

Araba

Arabako Hezkuntza
Ordezkaritza
San Prudencio, 18 behea
01005 Vitoria-Gasteiz

Bizkaia

Bizkaiko Hezkuntza
Ordezkaritza
Gran Vía, 85
48011 Bilbao

Gipuzkoa

Gipuzkoako Hezkuntza
Ordezkaritza
Andia, 13
20004 Donostia

Erreklamaturako probak ikustea edo entzutea: Erreklamazioa egiten dutenek azterketa ikusteko edo entzuteko aukera izango dute IRALEko irakastegietan.

Araba

IRALE Gasteiz
Pio Baroja herri-ikastetxea
La Habana, z/g
Gasteiz

Bizkaia

IRALE
Artazugoikoa herri-ikastetxea
Artazubidea, 5
Bilbo

Gipuzkoa

IRALE Donostia
Larratxo Pasealekua, 51-53
Larratxo auzoa
Donostia

Urtarrilaren 9an

Azterketa	Ordua	Lurraldea	Hizkuntza Eskakizuna
Idatzizkoa	11:00-12:00	Araba/Bizkaia/Gipuzkoa	HE1/HLEA/HE2
Ahozkoa	12:30-13:30	Araba/Bizkaia/Gipuzkoa	HE1/HLEA/HE2

Behin betiko emaitzak: 2026ko urtarrilaren 30ean.